

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure ideia aurrera eramateko hurrei zuzendutako edozein motatako materialak erraztu ahal gaituenak izango dira, eta hauek hiru taldetan banatu ditugu: publiko arrunta, haur aisialdiko elkarteak eta haur eskolak.

Negozia aurrera ateratzeko kanpoko hiru bazkide edo hornitzaile hauek ezinbestekoak ditugu, beraiek izango baitira salmentarako produktuez hornituko gaituztenak. Enpresa bigarren eskuko denda izanik, diru sarrerak emango gaituzten produktuek bestelako agenteetatik lortu behar ditugu, eta hemen sartzen dira aurrez aipatutako hiru multzoak.

Hasteko haur materialak saltzeko prest dagoen edozein pertsona izango da gure lehen hornitzailea. Edozeinek izango du aukera dendara joateko eta bertan bere materialak aurkezteko, eta egoera egokian egonez gero, baita trukearekin hasteko. Beraz, garrantzitsua izango zaigu herriarekin izango dugun harremana hau izango baita bazkide nagusia.

Bestalde, haur aisialdirako elkarteak aurkitzen dira. Horretarako, enpresarekin hasi baino lehen, hiriko elkarte guztiak aztertuko dira eta hauekin harremanetan jartzeko prozesua beteko da. Elkarteek alde batera utzi dituzten edo utzi nahi dituzten materialak hornitzeko garrantzitsuak izango dira, baina garrantzitsua izango da baita ere gure enpresak beraiei bigarren eskuko materialez hornitzea ere. Era honetan elkartrukeak bi noranzkoak izango dira eta egonkortasuna lortuko dugu.

Azkenik, gure hirugarren hornitzaileak haur eskolak izango dira. Aisialdi elkarteekin bezala, hasteko ingurunearen azterketa egingo da eta gero kontratu edo hitzarmen antzekoa sinatuko da. Kasu honetan ere inportantea izango da trukeak bi noranzkoak izatea, hau da, guk haur eskolak eta haur eskolek gu hornitzea, horrek ere gure enpresari oreka eta egonkortasun bat emango baitio. Beraz, gure ideia hiru talde hauek izango ditu funtsezko sozietate, hauek izango baitira diru sarrera izateko salduko diren produktuez hornituko gaituzten sektore garrantzitsuenak.